

# Ipuinak, tabuekin hausteko

## Carles Cano



(Valentzia, 1957). Filologia katalanan lizentziaduna, irakasle, idazle eta ipuin kontalaria da. Haur eta gazteentzako liburu ugari baten autorea da, horien artean nabarmentzekoak dira *La gallina que pogue ser princesa*, *T'he agafat caputxeta*, *Contes per a tot l'any* (1997), *A l'altre costat del barret* (2002) eta *La màquina de contes* (2002).

Gidoilari moduan lan egin du irratian eta telebistan. Irakurketaren aldeko lantegitan parte hartu du eta ipuin kontalari aritu da bai Espainiar estatuan nahiz kanpoan. Hainbat sari literario jaso ditu, hala nola, Samaruc eta Lazarillo sariak, eta CCEI sariko ohorezko zerrendan egon da.



# Blue tabua

Carles Cano

Irakasleak gelara sartzeaz bat betaurreko ilunak jarri zituen. Seinale txarra. Hark ez zuen gauza onik adierazten. Egun hartan tabuen inguruan hitz egitea tokatzen zen.

Berak tabuei sekula ez zien garrantzirik eman. Egia esatera, txan-txaz hartzen zuen, jende atzeratu eta primitiboaren portaerak ziren, hala zioen berak. Maiz kontaktzen zuen tabu hitzak, berarentzat, bera amak ipini ohi zuen perfume sarkor eta antigoalekoa besterik ez zuela adierazten. Eta semiotikako ikasleei azaltzen ari zizkien Tonga uharteko biztanleengandik mailegatu hitza eta kontzeptua, itxuraz behintzat, distantziaz eta ezkortasun handiz.

- Gure kultura, batzuen arabera geure existentzia –ironiaz zioen– tabu baten hausturan oinarritzen da. Evak sagarra hozkatu izan ez balu paradisuari geundeke orain, ez hotzak ez beroak, eta klima aldaketa bost axola izango litzaiguke, eta, esan gabe doa, ez zuek ez ni, ez ginatete hemen arituko semiotika hirugarrenko kurtsoan. Gauza da Evak kosk egin zuela eta debekua hautsi egin zen. Tabuak nonahi eta era guztietakoak daude, batzuek kultura eta erlijio osoak hornitzen dituzte, txerri haragia ukitu edo jateko judu eta musulmanen debekua kasu. Besteak talde txikiagoetara mugatzen dira, antzerki giroko kolore horiarekikoa bezala, edo zezenezaleen artean aipatu ezina dena aipatzeko tabua. Tabuz inguratuta bizi gara, jabetzen ez bagara ere. Eta jabetzen garenean, zezen kontuaz ari garenez "a la torera" paso egiten dugu. Pentsatzen dut ezaguna egingo zaizuela tabu den esaera: *eltzekoa nondik...* Suposatzen dut ondo dakizuela fakultate honetan aintzakotzat ez ditugula hartzen, ezta?

Hona iritsita irribarretxoak eta zeharkako begiradak zuzentzen dituzte dialektologia irakaslearekin zebilen neska batengana.

- Ongi da, tira, neurri batean, gutxi asko, denok bizi gara tabu bateren baten eraginpean, horregatik ez “enroilatu” ez anaiarekin ez ahizparekin, ezta ogia oiltan bustita bezain erakargarri gertatzen bazaizu ere; eta, gutxi asko, jantzita gatoz eskolara. Nolanahi ere den, badaude tabu batzuk oso bereziak, geure tabu propioak, norberarenak beste inorenak ez direnak. Nahi nuke horietaz hurrengo ordu eta erdian hausnarketa egin dezazuela. Badakit zuetako batzuek higuin diozuela, baina lapitza eta papera eskuan hartuta hausnarketa hobeto egiten da. Zeuon baitan murgildu eta saiatu esplikatzen zeure buruari soilik zein den bakoitzak ezagutzen duen tabu hori. Ondoren, ausartzen baldin bazarete, irakurriko didazue eta solas egingo dugu gero. Noski, egilearen izena ezkutuan gordez. Ez zaudete inolaz ere behartuta.

- Eta zein da zure tabua? –galdetzen dio ikasle berri batek–. Irakasleak, Juli Martík, goitik behera begiratzen dio. Isiltasun lodi bat egiten da, tentsioa.

- Nire tabua kolore urdina da. Hain zuzen, zeuk daramazun urdin horixe, eta betaurrekoak jartzera behartu nauena. Kolore horrekin berriz azaltzen bazara, ez zara nire gelan sartuko –lehor esaten dio, zorrotz–.

- Zer demontre gertatzen zaio kolore urdinarekin? –galdetzen dio poliki, ia ahopeka, Manel Grau-ri, bere mahaikideri–.

- Xsst, gero kontatuko dizut.

Ordubete beranduago, Filologia Fakultateko kafetegian, ikasle berriak botatzen zion Maneli:

- Kontatuko al didazu, behingoz, zer gertatzen zaion horri kolore urdinarekin?

- Begira, irakurri gauza bat eta hobeto ulertuko duzu –erantzuten dio–. Manelek, halako balentria egindako ikaskidea fakultateko liburutegira eraman eta unibertsitateko aldizkari atzeratu bat eskatzen dute.

- Begiratu, duela pare bat urte Juli Marti etorri zen gelara lamina batekin eta galdera bat luzatu zien ikasleei. Haren ondorioz, egundoko haserrea hartuta, deabruak gainetik kentzeko ipuin bat idatzi zuen eta fakultateko aldizkarian argitaratzea otu zitzaion, hemen ikusten duzun honetan. Nolanahi ere, hobe zerorrek irakurtzen baduzu.

## **Rapsodia urdina**

*Egun hartan triste zegoen, Blue, ingelesez esaten den bezala, kolore horrekin bat datorren tristurarekin. Semiotika irakaslea zen*

*unibertsitatean eta goiz hartan, hain justu, esplikatu zien irakasleei mundua objektu sinbolikoa dela, irudi bat ez dela soilik irudi bat, baizik izan daitekeela ere sinbolo. Eta errektangulu urdina kartulina zuri baten barruan jarrita, erakutsi eta hura zer zen galdetu zien. Inork ez zuen erantzun. Inork ez zuen tontotzat hartua izan nahi. Orduan haietako bati zuzendu zion galdera, eta, hark, zalantzati, erdi galdezka, esan zuen:*

*- Errektangulu urdin bat?*

*- Ondo. Zerbait behintzat badugu. Badugu zerbait. Errektangulu urdin bat! –jaulki zitzaion–. Oso ondo, eta zeren antza du? –Isiltasun erabatekoa–. Ea mutilok, zeren antza du? –Isiltasun kanposantukoena lakoa–. Sumindu egin zen, berealdikoa harrapatu zuen. Neronek esango dizuet zeren antza duen, hobeto esanda, bi urte dituzten nire semearen lagunek esango dizuete, galdera bera egin baitiet gaur goizean: zeruaren antza du, leiho baten zehar ikusita, eta igerileku batena, eta koaderno batena, eta ate batena, eta baita arrain ontzi batena, eta horixe azaldu nahi nizuen, sinboloak sortzeko dauden moduak, dauden ordezkapenak, metaforak osatzeko moduak. Baina metaforak zuentzat, kaka zaharra! –zeharo haserre zegoen–. Berak ez zien ulertzen. Haiiek ez zuten ulertzen. Ez zuten elkar ulertzen. Egin itzazue 123 orrialdeko ariketak eta hausnartu errektangulu urdinei buruz!*

*Iluntzen zihoan, zeru urdin ilunari begiratzen zion leihoaren bestaldean. Ginebra edalontzi bat eskuan, ginebra urdina, ginebraren kolorea eta zeruarena bat zetozen errektanguluarena-ekin. Orduan, zergatik jakin gabe, leihora azaldu eta begiratu zuen beherantz. Hirugarren solairutik beheko igerilekua errektangulu urdin perfektua zen, iluna ere bai. Gorpu bat ur gainean. Barrurantz egin, ez ikusiarena egin nahi zuen eta, piztu zuen telebista, bideoaren kanalean zegoen eta berriz ere errektangulu urdin hura azaldu zen. Piztu zuen ordenagailuak, pantaila urdina ere zuena. Kolore hark beherantz bultzatzen zuen. Jaitsi zen igogailua, orain bai ohartu zen, ateak urdinak baizituen. Eraikuntzako igerilekura iristean ikusi zituen poliziaren argi bafadak, keinuka ari zirela, urdinak. Igerilekuaren ondoan, blai eginda, alkondara urdinez, fakultateko ikasle bat, auzokoa ere bazena, lurrean zetzan. Ohar bat zeukan alkandorako patrikan, baina tintaz idatzia zegoen eta urak tinta barreiatu zuen eta dagoeneko errektangulu bat mantxa urdinekin ez zen besterik. Lur jota sentitzen zen, errudun. Gorantz begiratu eta ikusi zuen bere etxeiko leihoan argi piztua zegoela. Agian emaztea bueltan egongo zen. Igo zen. Zeharo triste zegoen, guztiz urdin. Arraiak bazkatu zituen, zeintzuk, ez jakinak, tolesgabeki, euren errektangulu urdinaren alde batetik bestera igeri*

*egiten baitzuten. Azal urdineko koaderno ireki eta istorio hau idatzi zuen.*

Irakurtzen bukatu orduko, ikaskide berriak aldizkaria itzuli eta esan zion:

- Tira, ipuin bat da, ezta? Apur bat urdinegi nire gusturako, esan zuen bromosoarena eginez.

- Bai, ipuin bat besterik ez zen, baina ikasle puta seme batek, tipo bat burutik nahikoa joa zegoenak mundu honetan zer eginik ez zeukala pentsatzen zuenez, ipuina irakurri eta otu zitzaion bazeukala bizia besteari hondatzea. Ipuineko suizidioa kopiatu zuen eta patrikako paperean irakur zitekeen argi eta garbi: Juli Marti, KABROI GALANTA. Komunikabideak oldartu zitzaizkion, psikologoek, psikiatreek eta egunkarietako kazetariak, era guztietako jendilajeak, oiho jo eta ondo larrutu, laidotu zuten. Azkenean lortu zuten bera errudun senti zedila eta urte bete oso bat gaixo, lanetik at, depresio batek jota egon zen. Tratamenduan dago oraindik.

- Eta hau guztia nola dakizu zuk?

- Auzoko garelako, fikzioan, lehen ipuinean, ni nintzen protagonista. Ondo, tabu berri bat duzu beraz. Banoa, ezta nik ere ezin dut urdina jasan-eta.